



Kuartk Valley.

Euskal ekoizpen berrien erakusleiho distiratsu dator

IRENE ELORZA

Zinemira saila *No somos nada* filmarekin abiatuko bada ere, euskal zinema badela nor eta gero eta anitzagoa dela erakustera dator aurtengo edizioa. Hamazazpi lanek osatuko dute Donostia Zinemaldiaren 69. edizioko euskal partaidetza, hainbat sailetan banatuta.

Zinemira, euskal zinemari berriaz eskainitako sailak, hamaika lan

erakutsiko ditu. Horietako zazpi Zinemaldian mundu-estreinaldiak izango dira eta, horregatik, Euskal Zinemaren Irizar Saria lortzeko hautagaiak izango dira, Zinemaldiaren beste atal batzuen parte izango diren beste bi lanekin batera.

Javier Corcuera La Polla Records punk taldearen agur-biraren inguruan sortutako *No somos nada* dokumentalak zabalduko du lehia, eta Maru Solorenen *Aztarnak* film luzearen

estreinaldiak itxiko du Zinemira. Bien bitartean, Iñaki Alforja eta Iban Toledo zinemagileek José Miguel Etxeberria Álvarez *Naparra* desagertuaren bilaketari buruzko dokumentala ikusi ahal izango da. Baita Iker Elorrietaren fikziozko lehen film luzea ere, *El radioaficionado* fikziozko lana. Dokumentaletara itzulita, Hernán Zin zinemagileak Belako musika-taldeari buruzko *Pandemic Tour 2020 Belako* lana ekarriko du Donostiara.

Xabier Erkizia soinu-artista eta euskal ekoizpen ugariaren soinu-arduradunak errealizadore gisa debuta egingo du aurtengo Zinemiran. O *Gemer* film esperimentalak idigurdiek egiten duten soinu bitxitik abiatzen da. Bestalde, Zinemaldian hainbat film proiektatu dituen Maider Oleagak *Kuartk Valley* estreinatuko du, Arabako haran bateko herri batean bertako jendeak lagunduta filmatutako western baten istorioa, hain zuzen.

Euskal Zinemaren Galan estreinatuko da *Hondalea*, Asier Altunak Cristina Iglesias artistak Donostiako Santa Klara uharterako sortu duen obraren inguruan zuzendutako lana. Azkenik, Euskal Zinemaren Irizar saria irabazteko lehian izango da *Maixabel*, Sail Ofizialean parte hartuko duen Iciar Bollainen azken filma.

Lehiaz kanpo ikusi ahal izango dira baita ere: García de Vicuña zuzendutako *Irabazi arte* telesailaren lehen atala; Aitor Merinoren *Fantasia* lana; Igor Legarretaren *Ilargi guztiak*; Josu Martínez eta Samara Velte zuzendarien *Paperezko hegoak*; Mireia Gabilondok eta Kepa Errastik azken honek idatzitako antzezlanarekin osatutako *Erlauntza* film korala; Mikel Gurrearen *Heltzeaz* film laburra; eta Amat Vallmajor del Pozoren *Misión a Marte*, eta Marina Palacioren *Y así seguirán las cosas* proiektuak.

Harrobiaren sustatzailei aitortza

Zinemaldiak eta ekoizleen elkarteek Kimuak euskal film laburrak babesteko programari omenaldia egingo diote aurtuen eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Euskadiko Filmetegiak eta Etxepare Institutuak bultzatutako programari Zinemira Saria emango diote.

Kimuak programa 1998an sortu zen, eta euskal film laburrak Espainian eta nazioartean sustatzea, zabaltzea eta banatzea du helburu. Lanaren orijinaltasuna eta ausardia aintzat hartzen ditu, hala nola euskaraz filmatua egotea eta EAEko teknikari eta aktoreen parte-hartzea izatea. Urteroko katalogoa zinema jaialdi zein ikus-entzunezko ospakizun garrantzitsuetara bidaltzen da, film laburren sorta berria nazioarteko ikuslegoari helarazteko.

Gaur egun Kimuak ahalbidetzen duen taldeak (Euskal Filmetegiko Txema Muñoz eta Esther Cabero) irailaren 21ean Victoria Eugenia Antzokian egingo den Euskal Zinemaren galan jasoko du saria.

NESPRESSO

CAFÉ OFICIAL
DEL FESTIVAL
DE SAN SEBASTIÁN

what else?

69 | **SSIFF** Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival